

Interinoak mehatxupean

Irakasle interinoen lan baldintzak Nafarroan zeharo prekarizatu dira azken urteotan. Prozesua 2008. urtean hasi zen, orduan Nafarroako Hezkuntza Kontseilari zen Carlos Perez-Nievasek, interinoen zerrendak kudeatzeko sistema berria martxan jarri zuenean. Sistema honen bitartez, interinoek nahitaez gainditu behar zituzten oposizioak baldin eta zerrendako lehenengo postuetan mantendu nahi bazuten. Horrela, oposizioak gainditzeko zituzten hautagaiak “Lehentasunezkoa” deituriko zerrendan sartzen ziren, ondoren “Plazarik Gabeko Gaindituen” zerrenda deitu izan dena. Sistema honek martxan jarraitzen du Nafarroan eta interinoen egonkortasuna erabat kolokan jarri du.

UPNren gobernuaren garaian hezkuntza publikoak hamaika eraso jaso ditu: plantilen murrizketen ondorioz eskaintzen dira bakanteen kopurua asko jaistea, Gabonetako eta Aste Santuko opor egunak finikitoetan kentzea, ordezkapenen atzerapena... Epaitegietara jo behar izan dugu behin eta berriz, eta jotzen segitzen dugu.

Gainera, ezin dugu ahaztu orain arte Departamentua urte luze egon dela oposiziorik konbokatu gabe, hortaz, Lizentziatu, Diplomatu eta Graduatu berriek erabat itxita izan dituzte Hezkuntza Publikoko atatak.

2015-2016 ikasturtean, UPN Gobernutik kanpo gelditu zenean, Jose Luis Mendozak hartu zuen Departamentuaren burutza. STEILASen eta gainerako erakundeen lehenengo erreklamazioetako bat 60/2009 Foru Agindua bertan behera uztea izan zen (Pérez-Nievas-ek inposatua) batez ere Hezkuntzak 2016ean lehen eta haur hezkuntzako oposizioak deituko zituela ziurtatzean.

Zenbait hilabete airean egon ondoren, 2016ko maiatzean bertan behera utzi zen aurreko legedia eta gaur egun indarrean dagoen 55/2016 Foru Agindua onartu zen Departamentuan.

STEILASek aurreko legea puntu batzuetan hobetzen duela onartu arren (“Plazarik Gabeko Gaindituen zerrenda” desagertu da, zerrenden irekiera iraunkorrak, plaza bati behin uko egiteko aukera postua galdu gabe...), ezin dugu ahaztu aurrekoaren eragina duela puntu askotan (irakasle euskaldunei apartheid linguistikoa aplikatzen jarraitzen zaie, oposizioko notari balio handiegia ematen dio azterketara aurkeztera behartuz, ostiraleko ez-ohiko deialdiak mantentzen ditu, baita Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerrendak ere, ez ditu uko egite justifikatuak eskatzeko aukera gehiago gehitzen...). Honen guztiagatik araudi berri bat eratzea eskatzen dugu, oraingo Foru Aginduak mantentzen dituen bidegabekeriekin amaitzeko.

Hala ere, 55/2016 Foru Agindua da indarrean dagoena, eta beraz, dokumentu honetan zerrenden kudeaketa nola arautzen duen zehaztuko dugu argi eta garbi.

Murrizketak

Hasteko, argi izan behar duzue azken urteotan murrizketa basatiak ezarri direla Hezkuntzan eta hortaz, irakasle interinoen lan baldintzak zeharo kaskartu direla. Horregatik guztioi dagokigu kolektibo honen duintasunaren alde borrokatzea.

2007-2011 urteetan indarrean egon zen Hezkuntza Ituna amaitu zenetik, Departamentua hezkuntzarako gastua modu basatian murrizten hasi zen eta murrizketa hauek interinoei eragin zieten bereziki. Denboran atzera egingo dugu eta 2011ko ekainean kokatuko gara. UPNren Gobernuak iragarri zuen 2011-2012 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako irakasordua 17tik 18ra igoko zituela. Argudioa honakoa izan zen; behin Ituna agortuta Administrazioak ez zuela inolako konpromisorik bertan adostutakoarekin eta gainera ez zegoela dirurik..

2011-2012 ikasturterako plantilak itxita eduki arren, UPNk iragarri zuen Bigarren Hezkuntzarako plantilekin “proba” bat egingo zutela irizpide berriak erabilita. Batzuek Administrazioaren borondate onean sinetsi zuten. Guk ez, eta tamalez, ez ginen erratu. Azkenean plantilak irizpide berriekin berregituratu ziren: Bigarren Hezkuntzan ordu lektibo bat gehiago, 55 urte baino gehiagokoentzako ordu murrizketen amaiera eta 58 urte baino gehiago dutenei adinagatik murrizketak Departamentu Buruzagatik murrizketekin gehitzea ez uztea. Ondorioak: %5eko murrizketa plantiletan eta 250 interino langabeziara.

2011ko azaroan Mariano Rajoy buru zuen Alderdi Popularrak Espainiar Estatuko hauteskundeak irabazi zituen. Orduetik aurrera interinoen kolektiboak alde biko erasoak pairatu zituen, batetik, UPNk zuzentzen zuen Departamentuarenak eta bestetik, Madrildik zetozen PPren Gobernuarenak. 2012ko apirilean "gastuaren arrazionalizazioaren" 14/2012 Dekretu-Gea onartu zen Madrilen eta horren bitartez erabaki zen, irakasorduen (18tik 20ra Bigarren Hezkuntza eta 23tik 25era Haur eta Lehen Hezkuntza), eta irakasle/ikasle ratioen igoera %20an eta bajak bi aste baino lehenago ez ordezkatzeari. Nafarroako Hezkuntza Komunitatearen kontrako jarreraren eta mobilizazioen arrakasta historikoaren gainetik, UPNk gorrarena eta itsuarena egin zuen eta dekretua Nafarroan aplikatzea erabaki zuen. Interinoentzako ondorioak oso mingarriak izan ziren: 500 irakasle INEM-eko zerrendetara.

Eta interinoen egoerak okerrerago egin ezin zuela ematen zuenean, Hezkuntza Departamentuak (oraindik UPNren eskutan) 2012-2013 ikasturtearen hasieran prekarizatorantz beste pausu bat eman zuen. Kasu honetan, eraso interinoen kolektiboaren barrenean dagoen talde ahulenaren kontra zuzendu zen: interino ordezkoren aurka, hain zuzen ere. Orain arte aplikatzen zen irizpidearen gainetik, irakasle hauei finikitoan neguko (8 egun) eta udaberriko (4 egun) opor egunak finikitoan deskontatzen hasi ziren. Neurri hau 2012-2013, 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan mantendu zuen UPNren Gobernuak, nahiz eta urte horietan zehar STEILASek irizpide horren aurka hamaika sententzia irabazi. Azkenean, 2015. urteko hauteskundeetan ostean Gobernuak aldatu zenean, irizpidea aldatu zen eta jada 2015-2016 ikasturteetik aurrera ez dira opor egunak finikitoan deskontatu. Hala ere, Administrazioak UPNren irizpidea okerra zela onartzen duen arren kaltetutako interino guztiei ez die kendutako dirua ofizioz itzultzeko asmorik eta banan-banan kasu bakoitza epaitegietara eramatera behartzen gaitu. Horregatik, aurten gure erronka nagusienetakoa Departamentuak interinoei zor zaiena (neguko, udaberriko eta udako oporrak, familia-laguntza...) ofizioz ordaintzeko konpromisoa hartu dezala izango da.

Pasa den ikasturtean Kontseilari berriaren etorrerarekin (Mendoza), aurreko Gobernuak ezarritako ikaragarritzko murrizketak konpontzeko pausuak emanen zirela pentsatzen genuen. Baina gauza gutxi aldatu ziren 2015-2016 ikasturtean (Haur eta Lehen hezkuntzako ratioen jaitsiera bakarrik).

Ikasturte hau (2016-2017) Hezkuntzako aurreko taldearen kargu-uztearekin hasi da (Kontseilaria izan ezik). Honekin batera esperantza dugu irakasleen lan baldintzak hobetzeko hitzarmen baten negoziazioa hasiko dela (irakasorduen jaitsiera, ratioen jaitsiera gorputz guztietan, berehalako ordezkapenak...).

STEILASen argi dugu irakaskuntza publikoan enplegua suntsitu beharrean lanpostu asko sortu behar direla, murrizketa guztietan atzera egin behar dutela eta langile ordezeko egonkortasunerako eskubidea dutela.

Gainera, krisi sakoneko egoera honetan oso zentzuduna da esatea zerbitzu publikoak, hezkuntza barne, indartu behar direla, gehien beharrak asetzeko. Kalitate oneko enplegua izatea guztion eskubidea da, eta aberastasuna beste era batera banatu behar da gure jendartean gero eta desoreka handiagoak daude eta.

Ordezkapenen kudeaketa

STEILASen interinoen zerrendak oposizio notaren arabera ordenatzearen kontra egon gara beti. Sistema honekin arrazoi ezberdinengatik oposaketa ongi prestatu ezin izan duen irakaslea zigortzen da eta gainera ez du bermatzen interinoen kolektiboaren gutxieneko egonkortasuna ere.

Zerrendetan sartzeko bide zuzen eta gardenena urtero zerrendak zabaltzea litzateke, izena eman ahala jendea ordenatzea, eta birbaremazioan merituen arabera zerrendak berregitea. Merituak baloratzean ahalik eta irizpide objektiboenak erabili beharko lirateke, sare publikoan egindako lana lehenetsita. Era honetan, irakasle interinoak merituen arabera ordenatuta geratuko lirateke eta horrela, batetik, lanean dauden pertsonak nolabaiteko egonkortasuna lortuko lukete, jadanik ez zutelako oposaketen ondoren langabezian gelditzeko arriskua izanen eta bestetik, ordezko gai berriek beti edukiko lukete zerrendetan sartzeko aukera, egungo egoera hobetzen delarik.

Gainera, Nafarroan apartheid linguistikoaren arazoa dugu. Hizkuntza koofiziala duten gainontzeko Erkidegotan nahiz Nafarroako Administrazioako beste esparruetan gertatzen ez den bezala, Hezkuntzan zerrendak hizkuntzaren arabera banatuak daude. Horrek irakasle elebidunei ikaragarritzko kaltea egiten die, hizkuntza batean edo bestean klaseak ematera behartzen baitituzte. Horregatik, hizkuntza eta habilitazio guztiak kontuan hartuko dituen Gorputz bakoitzeko zerrenda bakarraren aldeko apustua egiten dugu. Oraingoz Departamentuak jaramonik egiten ez digun arren, haren alde borrokatzen jarraituko dugu, bidezkoena delako.

steilasen, hizkuntza eta habilitazio guztiak kontuan hartuko dituen Gorputz bakoitzeko zerrenda bakarraren aldeko apustua egiten dugu.

Hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia

(55/2016 Agindu Forala)

Ikastetxe Publikoetan
lan egiteko, Hezkuntza
Departamentuak
kudeatzen dituen
hautagaien zerrendetan
egon behar duzu.

Zerrendak

LEP bakoitzaren emaitzatik zerrenda orokor bat eratzen da, eta honetan sartzeko nahitaezkoa da aurkeztea eta puntuazio positiboa lortzea. Zerrenda hau ordenatzeko irakaskuntza esperientzia (10 puntu gehienez), oposizioko nota (bi proben batzbesteko aritmetikoa), prestakuntza akademikoa (5 puntu gehienez) eta beste merituak (2 puntu gehienez) hartzen dira kontuan. Zerrenda orokorraren atzetik beste bi zerrenda daude: **berariazko zerrenda (modu iraunkorrean irekiak beharra daukaten espezialitateetan) eta Nafarroako enplegu zerbitzuetatik hartutako zerrendak**. Beraz, hiru zerrenda hauen ordena modu honetan gelditzen da:

► **Zerrenda orokorra.** 2016-2017 ikasturtean, **2016an oposizioa izan zuten espezialitateetan bakarrik** izanen da. Gainontzekoetan aurreko zerrendak mantentzen dira. Hauek hiru taldetan banatzen dira:

a ► Oposizioaren lehenengo ariketara aurkeztea eta puntuazio positiboa izatea (>0). Gainera, **espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako zehazten diren titulazio eskakizunak bete behar dira** (aurretik espezialitate eta hizkuntza horretako zerrendaren batean zeudenek edo oposizioa gainditu dutenek ez dute eskakizun hori egiaztatu behar). Zerrenda honetan daudenak ondorengo baremoarekin ordenatzen dira: aurreko irakaskuntza esperientzia (10 puntu gehienez), oposizioko nota (bi proben batz besteko aritmetikoa), prestakuntza akademikoa (5 puntu gehienez) eta beste merituak (2 puntu gehienez).

b ► Deialdi berean beste espezialitate eta hizkuntza batera aurkeztu izana, puntuazio positiboa lortuz (>0), beti ere oposizioaren ikasturtean zerrenda horretan egonik. Baremoa A atalekoaren berdina da (aurreko paragrafoa), oposizioko nota izan ezik.

c ► Oposizioak deituak diren urtean espezialitate eta hizkuntza horretan lan egin izana. Puntuaziorik gabe ordenatuko dira A eta B atalak osatzen dituzten pertsonen atzetik, aurreko zerrendan zuten ordenaren arabera.

► **Berariazko zerrenda.** Hezkuntza Departamentuak eratzen du **irakasleen beharra duten espezialitateetan eta hizkuntzetan soilik**. 2016-2017 ikasturtean irekitzen hasi dira, eta espezialitate gehienetara zabalduko dela aurreikusten dugu. Bi motako zerrendak daude:

a ► Proba bat gainditzea eskatzen duten espezialitateak (musika eta arte eszenikoetako irakasle eta katedradunak). Zerrenda hauetan sartzeko proba bat gainditzea beharrezkoa da (5 puntu gutxienez 10etik) eta baita titulazio baldintzak betetzea. Proban lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira (gainditu dutenak bakarrik).

b ► Proba gainditzea eskatzen ez diren espezialitateak. Zerrenda hauek **irekiak mantenduko dira iraunkorki**. Eskari guztiak apirilean eta urrian ebatziko dituzte eta aurkeztutako tituluaren batzbesteko notarekin ordenatuko dira (unibertsitateko espediente akademikoa). Hauetan sartu ahal izateko titulu baldintzak betetzea nahitaezkoa da.

► **Enplegu zerbitzu publikoen bitartez kudeatutako zerrenda.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak osatzen du zerrenda hau Hezkuntza Departamentuak eskatzen dion espezialitateetan. **Bertan izena emateko beharrezkoa da Nafarroako Enplegu**

Zerbitzuan enplegu eskatzaile bezala apuntatuta egotea eta espezialitateko titulazioa edukitzea. Gainera, azken urteotan Nafarroako erroldan sartuta egotearen baldintza jarri da, baina gure ustez hau erabat diskriminatzailea eta bidegabea da. Enplegu zerbitzuak berak ordenatzen du zerrenda, enplegu eskatzaile moduan emandako denboraren arabera. Lege berria (55/2016 Foru Agindua) onartzean Departamentuak zerrenda hauek kasu berezietan eta urgentziazkoetan, beste zerrendak amaitu direnean, soilik eskatuko zirela ziurtatu zuen. Hiru ikasturte gehienez egon daitezke indarrean.

Zerrendetan sartzeko bete beharreko baldintzak

Kontrataziorako zerrendetan sartzeko hurrengo baldintza orokorrak bete behar dira:

- ▶ Espainiar Estatuko edota Europar Batasuneko kide den Estatu bateko herritarra izatea. Herritar honen ezkontideak eta bere hurbileko senideek ere zerrendetan parte hartzeko aukera daukate. NAN-a ez dutenen kasuan ordezkogaiak gaztelania ezagutza proba bat gainditu beharko dute, baldin eta ez badute lortu espainiar Diploma (goi maila).
- ▶ 16 urte beteak izatea eta jubilatzeke adina ez izatea.
- ▶ Erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliezintasun handiaren egoera deklaratu ez egotea, eta irakaslanarekin bateraezina den eritasunik edo eragozpen fisiko zein psikikorik ez izatea.
- ▶ Diziplinazko espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzutik berezia ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- ▶ Karrerako edo praktiketako funtzionarioa ez izatea, edo kidego horren mailako edo goragoko karrerako funtzionario gisa noiz izendatuko duten zain ez egotea.
- ▶ Hezkuntza Departamentuko irakasle lanpostuetan, aldi baterako kontrataziorako ordezkogaien zerrenda batetik bazterturik ez egotea, arrazoia kontratua lanpostuan aritzeko gauza ez izateagatik edo lanpostura ez egokitzeagatik izan baldin bada.
- ▶ Sartu nahi den kidego, espezialitate eta hizkuntzako kontratazio zerrendan probako denboraldian kontratua deuseztatzeagatik ordezkogaien zerrenda horretatik baztertua ez egotea.
- ▶ Sartu nahi den kidego, espezialitate eta hizkuntzako zerrendan jadanik sartuta ez egotea.
- ▶ **2016-2017 ikasturtetik aurrera berariazko deialdi bidez eta enplegu zerbitzu publikoen bitartez sortutako zerrendetan sartzeko beharrezkoa da aintzinako CAP o Bigarren Hezkuntzako Masterra izatea.** Oposizioetara aurkezteko ere baldintza hau bete beharra dago.

Zerrendetan sartzeko bideak

Kontrataziorako zerrendan sartzeko hiru bide daude une honetan:

► Oposizio probetara aurkeztuta: EPEra aurkezten direnak eta puntuazio positiboa lortzen dutenak (>0), baldin eta titulu baldintzak betetzen badira. Baldintza hau betetzen ez bada, oposizioa gainditu beharko litzateke, gainditzeko gai izan den pertsona espezialitate honetan klaseak emateko gai dela suposatzen baita. Adibidez; geografia eta historian lizentziatua den batek matematiketako espezialitatera aurkeztea eta 5,5 ateratzea oposizioko nota globalean. Zerrenda orokorrera pasako litzateke zuzenean. Baina, 4,9 atera izan balu, ez litzateke zerrenda orokorrean sartuko honetarako tituluaren baldintza betetzea beharrezkoa delako, hau da matematikan lizentziatua izatea adibidez. Matematikan lizentziatua balitz nahiko izango luke puntuazio positibo bat ateratzearekin zerrenda orokorrean sartzeko. Kontuan hartu behar da 2012ko urtarrilean LOEko irakaskuntza sarbideko aldi baterako sistemaren amaierarekin, gaur egungo oposizioak gogorragoak direla: kanporatzailea da (lehen ez) eta proba praktikoa gehitzen zaio.

► **Berariazko zerrenden bidez (iraunkorki irekiak) edo Nafarroako enplegu zerbitzuak kudeatzen dituenak.** Hezkuntza Departamentuak **zerrenda hauetakoren batean dagoen bati kontratu bat eskaintzen badio**, kontratua amaitzean **zerrenda orokorrera pasako da automatikoki**. Aurretik esan dugun bezala, berariazko zerrendak Departamentuak erabakitzen zuen espezialitate jakin batzuetan bakarrik irekiko dira, irakasleak behar direla pentsatzen den horietan. Oraingoz, 2016ko irailaren amaieran 18 espezialitateko zerrendak ireki dira (gehienak bigarren hezkuntzakoak) eta irekiak mantenduko dira. NEZeko zerrenden azken irekiera 2015-2016 ikasturtean egin zen. Lege berriarekin urgentziazko kasuetan soilik eskatuko omen dituzte. Beraz, dirudienez Departamentuaren plana berariazko zerrenden irekiera iraunkorrari lehentasuna ematea izanen da. Hala ere, zerrenda hauetan sartzeko Irakaskuntza Ertainen kasuan ezinbestekoa da titulazio baldintza betetzea eta CAP edo bigarren hezkuntzako masterra edukitzea.

► **Ostiraletako deialdi berezien bitartez.** Zerrenden kudeaketa arautzen duen Dekretuan aipatzen da Departamentuak “kasu berezietan” eta “beti ere zerrendetan ordezkogairik ez dagoenean” ikasturtean zehar kontratazio bereziak egin ditzakeela. Horrela, **ostiral goizetan zehar, eskaintako plaza Departamentuaren web orrialdean publikatzen dira**. Eskaintzan interesa dutenek **eskaera bat bete eta e-posta bat bidali** behar dute contratossecundaria@navarra.es helbidera **igandeko 24:00 baino lehen**. Esleipenerako kontuan hartzen da, lehenengo, ea ordezkogaia espezialitate eta hizkuntza horretako zerrendetan dagoen, eta horrela ez bada, plaza posta elektronikoa lehenago bidaltzen duenari ematen zaio.

Betetzeko zailak diren lanpostuak

Betetzeko zailak diren lanpostuak **Departamentuak horietarako irakaslegoa aurkitzeko zailtasunak dituztenak dira**, eta hortaz, **postu horiek esleitu zaizkien pertsoneri abantaila batzuk ematen dizkie**. Zehazki, **Administrazioak interino horiek gutxienez hiru ikasturterako kontratatzeko konpromisoa hartzen du, nahiz eta epe horretan plaza funtzionario batek betetzen duen**. Hori gertatzen denean, Departamentuak irakasle hori beste ikastetxe batera bidaltzen du. Gainera, esleipen ekitaldian beste interino guztien aurretik aukeratzen dute plaza. Dena den, jakin behar da betetzeko zaila den postu bat duen pertsonak maiatzeko lehenengo hamabostaldian hurrengo ikasturterako uko egiteko aukera duela. Kasu horretan, hurrengo ikasturtetik aurrera zerrendan dagokion postuan egotera itzuliko da. Hiru ikasturteak igaro ondoren, kontratatutako pertsonak ikastetxean jarraituko du nahiz eta plaza funtzionario batek bete.

Hezkuntza Departamentuak honako leku hauek kontuan hartzen ditu betetzeko zailak diren lanpostu bezala: Erronkari Otsagabia, Garralda, Luzaide, Urdazubi-Zugarramurdi, Arantza, Betelu eta Goizueta eta baita 2016-2017 ikasturtetik aurrera deituriko zonalde ez euskaldunetan D eredu sartu den zentroetan (hur eta lehen hezkuntzan).

Lanpostuari uko egiteko bidezko arrazoiak

Badaude kasu ezberdinak non Departamentuak onartu egiten duen ordezkogai batek lanpostu eskaintza bati uko egitea zerrendan duen lekua galdu gabe. Horietan guztietan, uko egitera eraman duen egoera amaitzen denean interinoak Administrazioari horren berri eman behar dio baldin eta berriro zerrendetan egon nahi badu. Gainera, pertsona batek aldeztu aurretik lan egiteari uko egin diezaioke. Kasu horretan, uko egiteko agiria maiatzeko lehenengo hamabostaldian aurkeztu behar da Hezkuntza Departamentuan eta pertsona horri ez zaio deituko hurrengo ikasturtean zehar baina etorkizunerako bere zerrendako postua mantenduko du.

Lanpostu bati bidezko arrazoi batengatik uko egiteko lau kasu onartzen dira:

- ▶ **Erditze, adopzio edo harreragatik lizentzia egoeran egotea.** Egoera hauetako batean dagoen pertsonak **deialdiaren unean hartu izango lukeen lanpostua gordetzeko eskubidea izango du** eta edoskitze epea amaitu ostean postura itzuli behar du. Dena den, itzultzen ez bada ere, bidezko arrazoi bezala kontuan hartuko da eta pertsona horrek ez du zerrendako postua galduko.
- ▶ **Aitatasun baimenean egotea.**
- ▶ **Aldi baterako ezintasun egoeran egotea**, hau da, **baja medikuan**.

Baina ordezkogaiak arrazoi pertsonalengatik lanari uko egiten dion kasu hauetaz gain, badira plaza mota zehatz batzuk haiei uko egin arren interinoak zerrendako lekua galtzen ez duena:

► Lanpostu ibiltariak edo lanaldi erdia baino gutxiagoko plazak.

► **Profil bereziak** eskatzen dituzten plazak edota ordutegia Musikarekin, Gorputz Hezkuntzarekin, Hizkuntza Modernoarekin, Euskararekin gaztelerazko ikastetxeetan edo beste trebetasun tekniko edo instrumentalarekin betetzen dituzten plaza guztiak.

Esleipen ekitaldiak eta telefono bidezko deialdiak

Ikasturte bakoitzaren amaieran, **ekainean, Departamentuaren web orrialdean hurrengo ikasturtean indarrean egonen diren ordezkogaien behin-behineko zerrendak publikatzen dira.** Garrantzitsua da gainbegiratzea eta bertan zaudela egiaztatzea. Ados ez bazaude, erreklamazio epe bat dago. Behin-betiko zerrendak eratu ostean esleipen ekitaldia deitzen da (normalean ekainean, ikasturte horretan oposiziorik izan ez bada). **Deitu bazaituzte, nahiz eta pentsatu ez duzula plaza hartuko, oso garrantzitsua da bertaratzea, bestela zerrendako azkenengo postura bidaliko zaituzte.** Behin ekitaldia hasita, oso argi izan behar duzu zure izena esanda ez baduzu plaza hartzen, zure zerrendan “ez prest” bezala agertuko zara. Dena dela, eta lehen aipatu dugun bezala, bi plaza mota daude, uko egin ostean zerrendan “prest” mantentzeko eskubidea ematen dutena; lanaldi partzialeko edo lanaldi erdia baino gutxiagoko plazak eta **profil bereziak** eskatzen dituzten plazak edota ordutegia Musikarekin, Gorputz Hezkuntzarekin, Hizkuntza Modernoarekin, Euskararekin gaztelerazko ikastetxeetan edo beste trebetasun tekniko edo instrumentalarekin betetzen dituzten plaza guztiak.

Lege berriak lanpostu bat ez onartzearen ondorioak bigundu ditu. Orain uko egitean ez zara zerrendaren amaierara pasako, postu berean “ez prest” moduan agertuko zara. Kontratua hasiko litzatekeen egunetik aurrera “prest” jartzeko eskaria egin daiteke. Hau, Hezkuntza Departamentuan instantzia bidez sartu behar da eta hortik aurrera, 10 eguneko epea dute egoera aldatzeko, baina bigarren aldiz uko egiten badiozu honako honetan ikasturte amaierara arte egongo zara “ez prest”.

Lege berriak beste “hobekuntza” txiki bat dakar; ekain eta uztailleko esleipenetan aukera egongo da %80 baino jardunaldi txikiagoa duten plazei uko egiteko postuan “prest” mantenduz. Baina kontuz, oposizioak dauden urteetan esleipenak abuztura atzeratzen dira eta “hobekuntza” honek ez luke baliorik izango eta %50 azpiko jardunaldiei bakarrik egin ahalko litzaeike uko, telefonoz eskaintzen direnekin bezala.

Ekaineko esleipen ekitaldia egin ostean, abuztuaren bigarren hamabostalditik aurrera hizkuntza eta espezialitate bakoitzean sortzen diren beharrak betetzeko telefono deiak hasten dira. Lan eskaintzari uko egiteko aukera dago baldin eta esleipen ekitaldian ez hartzeko aukera duten plaza mota berdinak badira.

Lege berriak beste “hobekuntza” txiki bat dakar; ekain eta uztailleko esleipenetan aukera egongo da %80 baino jardunaldi txikiagoa duten plazei uko egiteko postuan “prest” mantenduz.

Salbuespenak arau orokorrari

Ordezko gaien zerrenden kudeaketa arautzen duen dekretuak **esleipenak arau orokorraren aurka egiten diren hainbat salbuespen egoera** aurreikusten ditu. Lehenago aipatu ditugun Ekaineko esleipen ekitaldia egin ondoren, abuztuaren bigarren hamabostalditik aurrera hizkuntza eta espezialitate bakoitzean sortzen diren beharrak betetzeko telefono deiak hasten dira. Lan eskaintzari uko egiteko aukera dago baldin eta esleipen ekitaldian ez hartzeko aukera duten plaza mota berdinak badira. Betetzeko zailak diren lanpostuez gain (Administrazioak hiru urterako kontratua eskaintzeko konpromisoa hartzen du) badira arau orokorra modu berezi batean aplikatzen diren beste bi egoera:

- ▶ Interino bat ordezkapena egiten ari bada eta bere kontratua amaitzen bada ordezkatua itzultzen delako, 20 egun igaro baino lehenago ordezkapena egiteko beharra berriro azaltzen bada, lanean ibilitako pertsonari deituko zaio, baldin eta honek ez badu lehenago beste kontratu bat sinatu.
- ▶ Interino batek lanaldi partziala hartu badu eta ikastetxe horretan espezialitate berean edo habilitatua dagoen beste espezialitate batean behar berria sortzen bada, interino berari eskainiko zaio kontratua.

Telefono deialdietarako protokoloa

Hezkuntza Departamentua telefono bidezko deialdietarako protokolo berria aplikatzen hasi da. Laburtuko dugu:

- ▶ **Astlehenero aste horretan haien kontratua amaitzen den ordezkoak zerrendan sartzen dira**, eta horrela, **bere kontratua bukatzen denerako beste ordezkapen bat suertatzen bada, interino horri egokitzen zaio**. Berriz, ordezkapen berria bere kontratua amaitu baino lehenago asteko bada, normala den bezala zerrendan dagoen hurrengoari deituko zaio.
- ▶ **Eguneko deialdiak hasi ostean ez da ordezko gai gehiagorik zerrendan sartuko ezta ordezkapen berririk sartuko hurrengo egunera arte**.
- ▶ Eskaintzen diren kontratuetan ordezko gai bakoitzari ematen dituen **telefono bakoitzera gutxienez bitan deituko diote**. Dei bakoitzaren artean gutxienez 10 minutuko aldea egongo da. Dena den, irizpide hori ez da aplikatuko ikasturte hasierako deialdietan (irailaren 30 arte) ezta lanpostua ordezkatzea oso premiazkoa den kasuetan edo postua betetzea berehalakoa izan behar denean.
- ▶ Pertsona batekin **kontaktuan jartzea ezinezkoa suertatzen denean**, egindako dei bakoitzaren erregistroa eginen da, ordua eta data apuntatuta, eta **ordezkogaia "aurkitu gabea" bezala kalifikatuta egonen da**. Ondoren, **zerrendan hurrengoari deituko zaio**.
- ▶ Dena den, **ordezkogaiarekin kontaktuan jartzeko 2 saiakera egin direnean, ez zaio berriro deituko baldin eta ez badu idatziz eskatzen Giza Baliabide Zerbitzuan**. Eskaera hau bakarrik behin egin daiteke ikasturte bakoitzean.

- ▶ Telefonoa eskegi ostean, **ordezkogaiak kontratua onartzeko** edo ez onartzeko erabakia hartu baino lehen minutu batzuk eskatzen baditu eta ondoren **ez badio Departamentuaren deiari erantzuten eskaintza errefusatzat joko da** eta **“ez prest”** moduan geldituko da zerrendan.

“Ez prest” egoera ikasturte bakoitzean behin bakarrik alda daiteke, giza baliabideen zerbitzuari idatziz eskatuz. 10 eguneko epean itzuliko da berriro “prest” egotera postu berean eta eskaintzak jasotzeko aukera izanen du. Bigarren aldiz uko egitean “ez prest” moduan jarriko diote baina kasu honetan horrela mantenduko da kurtso amaierara arte dagoen zerrenda guztietan. Hurrengo ikasturtearen hasierarako berriro “prest” agertuko da bere postuan.

Zerrendatik kanpo geratzeko arrazoiak

Garrantzitsua da jakitea zigorra oso larria izan daitekeela zenbait kasutan. Zerrendetatik betirako kanporaketaz mintzatzen ari gara, berez oso gogorra den neurria, baino une honetan are gogorragoa kontuan hartzen badugu Nafarroako Gobernuak ez duela hurrengo ikasturteetarako oposiziorik aurreikusten. Ordezko gai bat zerrendetatik kanporatzera eraman dezaketen arrazoiak oso anitzak dira, baina bi taldetan bana ditzakegu; kontratua sinatu baino lehen ematen diren kanporaketak, batetik, eta klaseak ematen hasi ondoren ematen direnak, bestetik.

Hauk dira ordezkogai bat lanean hasi baino lehen zerrendatik kanporatzera eraman dezaketen arrazoiak:

- ▶ **Kontratu bati uko egitea lehenago hitzez onartu ostean** (esleipen ekitaldian edota telefono bidez).
- ▶ **Departamentuarekin sinatutako kontratua bertan behera uztea edo lanpostua uztea.**

Bestalde, lanean dabilen interino bat zerrendetatik kanporatzeko arrazoiak honako hauk dira:

- ▶ **Probaldia indarrean dagoen bi hilabeteetan Administrazioak kontratua bertan behera uztea.** Egoera hau ematen da epe honetan ikastetxeko zuzendaritzak interinoaren inguruko kontrako txostena egiten duenean. Dena den, zehaztu behar da **ez dagoela probaldirik pertsona urte bat igaro baino lehen berriro kontratatua baldin bada.**
- ▶ **Gaitasun faltaren edo bete beharreko lanpostura ez moldatzearen ondoriozko arrazoiengatik edozein kidego, espezialitate edota hizkuntzako lan-kontratua deuseztatzea.**
- ▶ Hezkuntza administrazioek deitutako irakasle kidegotan sartzeko hautapen prozedura batean praktiketako funtzionario edo karrerako funtzionario izendatua egotea. Kasu horretan, ordezkogai izendatu duteneko mailako edo beheragoko kidego bati dagozkion zerrenda guztietatik baztertuko da.
- ▶ Erretiroa hartzeko adina betetzea. Erretiratzeko adina izanik zerbitzuan jarraitu nahi dutenek urteko luzapen eskera aurkeztu beharko dute Giza Baliabideen Zerbitzuan, betiere ordezkogaiak hirurogeita hamar urte bete ez baditu.

Araudia

Zerrenden funtzionamendua, espezialitateak...

Oinarrizko araudia:

https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2016/98/Anuncio-1_Apirilaren_29ko_55/2016_Foru_Agindua_interinoen_zerrenden_kudeaketa_arautzen_duena



Plazen esleipenak

http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/6415/Contratacion-temporal-de-personal-docente-listas-vigentes-y-adjudicaciones-diarias-Curso-2016-17



Lan baldintza orokorrak

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=10631> Abuztuaren 30eko, 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, Nafarroako Administrazio Publikoko lan



Ikastetxeen funtzionamendua

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28161> Otsailaren 10eko 24/1997, Foru Dekretua, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Araudi Organikoa onartzen duena.



<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28169> Otsailaren 10eko 24/1997, Foru Dekretua, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Araudi Organikoa onartzen duena..

